

FUNTSEZKO JARDUERAK



EGILEAK:

Izar Susperregi

Ekaitz Salaberria

Irati Ugalde

Mikel Moriana

Edozein negozio eredu aurrera eramateko beharrezkoa da zenbait jarduera burutzea balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko Funtsezko jarduerak honela sailkatzen dira: **produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.**

Produkzio jardueraren kasuan, honako hauek bereizten dira: Produktuaren diseinua; produktua, kantitate jakin batzuetan egitea; produktuaren kalitatea eta produktu beraren entrega.

Produktuaren diseinua:

Produktuaren diseinuari dagokionez, diseinu grafikoko enpresa desberdinei eskatuko genieke lehen marraskia edo produktuaren prototipoa birtualki egin dezaten. Ondoren, gehien gustatzen zaigun produktuaren prototipoa aukeratuko genuke. Eta azkenik, goi-mailako ingeniari batzuk kontratatuko genituzke produktu finala diseina dezaten.

Produktua, kantitate jakin batzuetan egitea:

Oso garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen jarduerak identifikatu eta egitea, eta horrela beharrezkoak ditugun jarduerak eta egin ezin ditugunak, beste enpresaren bati eskatu beharko dizkiogu egitea.

Produktuaren entrega:

Produktu finala bezeroari emateko edo entregatzeko, mezularitza bidez egingo genuke, hots, postaz. Horretarako kanpo enpresa bat kontratatu beharko genuke. Sektore honetara dedikatzen diren enpresa pila daudenez, guztiei aurrekontu bat eskatuko genieke eta entrega bakoitzeko gutxien kobratzen duen enpresarekin geldituko ginatke kostuak murrizteko. Enpresak konparatzen ikusi dugu **DHL** enpresa guztietan merkeena dela; zehazki, **9,20€/paketeko**.

Arazoak konpontzeko atalean, bezeroen arazoak konpontzen dira besteak beste. Bertan zerbitzuak, ospitaleak, aholkularitza... eta horrelako enpresak aritzen dira lanean. eta horrelako enpresek ezagutzaren gestioa eta etengabeko prestakuntza bat behar dute. Argi dago gure enpresa ez dela aipatutakoak bezalakoak, baina hala ere, gizarteari laguntzeko sortutako produktu bat diseinatzen dugu, beraz modu batera edo bestera gizarteari laguntzen ari garela esan dezakegu.

Bestalde, **plataforma eta sareko jardueri** dagokionez, plataforma teknologiko eta internet bidezko enpreetan dira nagusi. Eredu honetan, hainbat jarduera bereiz ditzakegu: plataformaren gestioa, etengabeko mantenua eta plataformaren promozionatzea besteak beste. Hortaz, jarduera hauetan ahalegin berezia egitea beharrezkoa izango da gure web orriak ongi funtziona dezan.

Bukatzeko esan beharra dago, oso garrantzitsua dela enpresaren barruan egin beharreko jarduerak identifikatzea eta egitea. Batzuetan jarduera horiek beste enpresek egiten dituzte, hau da, azpi kontratazio bat egiten da gure enpresaren produkzioan laguntzeko; baina kontuz ibili behar da laguntza hauekin enpresarentzako kaltegarriak izan daitezkeelako. Beraz, azpikontratazioak egiteak konpentsatzen digun edo ez baloratu beharko dugu.